



ATAUNgo UDALA

2002KO IRAILAREN 18AN UDALBATZA OSOAK
EGINDAKO BILKURA BEREZIA.

Ataungo Udaletxean, bi mila eta biko irailaren hemezortzian, 20:30ean, Udalbatza Osoa bildu zen bilkura berezia egiteko. Batzarburu bezala, Aitor Auzmendi Asurabarrena alkateak jardun zuen; eta aurrez, batzarkide guztiei egin zitzaien bertaratzeko deia.

Honako zinegotzi hauek etorri ziren: Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Santi Etxeberria Goikoetxea, Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain.

Idazkaria: Serafin Jaka Arrizabalaga.

I.- 2002KO EKAINAREN 5EAN EGINDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.- Alkateak bilkurari hasiera eman eta 2002ko ekainaren 5ean egindako bilkurari dagokion akta aztertu da.

Aitor Aldasorok adierazi du, hiru hilabeteko atzerapenarekin aurkeztu dela akta, eta aurrekoarekin ere berdin gertatu zela. Bestalde, egia da Udalaren osoko bilkurak aldizkakotasun horrekin egiten direla. Horregatik, bada, aktari euren onspena emango badiote ere, izan ere, bere edukiarekin ados baitaude, euren desadostasuna azaldu nahi dute aurrez adierazitakoa dela-eta.

Besterik gabe, Udalbatzak, aho batez, akta idatzita dagoen bezala onartzea erabaki du.

II.- 2 ZK.A DUEN KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEARI DAGOKIONA.- Indarrean dagoen aurrekontuaren barruan, 2 zk.a duen kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, aztertu da.



ATAUNgo UDALA

Kreditu gehigarriak gastuei dagokienez:

| Aurrekontu-partida | Kontzeptua | Kredituak | | |
|--------------------|--|------------------|-------------------|-------------------|
| | | Egungoak | Aldaketak | Behinbetikoak |
| 600.444.00.01 | Herribide luzapena (lurrak) | | 18.030,36 | 18.030,36 |
| 600.511.00.01 | Mediku-etxe Intxaurreondo (lurrak) | | 2.337,31 | 2.337,31 |
| 601.511.00.02 | 44 eta 45-46 G.U. urbanizazioa | | 299.120,05 | 299.120,05 |
| 601.511.00.03 | Paskual-iturri eta Udaletxe bitarteko espaloia | | 52.459,65 | 52.459,65 |
| 609.511.00.01 | 45-46 G.U. eraikuntzen balio-ordaina | | 30.044,90 | 30.044,90 |
| 609.511.00.02 | 44 G.U. eraikuntzen eta errenta eskubideen balio-ordaina | | 196.583,01 | 196.583,01 |
| 622.121.00.01 | Udaletxeko 3. Fasea (ejekuzioa) | | 90.151,82 | 90.151,82 |
| 622.443.00.03 | S.G. hilerriko nitxo berriak | | 17.600,00 | 17.600,00 |
| 623.521.00.01 | Telebistarako antenaren instalazioa | | 6.400,00 | 6.400,00 |
| 626.121.00.01 | Informazio prozesuetarako | | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 629.433.00.01 | Herrian zehar panelak | | 15.025,30 | 15.025,30 |
| 643.121.00.01 | Udaletxeko 3. Fasea (Proiektua) | 15.025,30 | 6.689,13 | 21.714,43 |
| 643.461.00.01 | Irigarritasun plana | | 11.600,00 | 11.600,00 |
| 649.121.00.01 | Web orrialdea | 4.808,10 | 3.000,00 | 7.808,10 |
| 689.451.00.02 | Oteizak eginiko eskultura | | 45.075,91 | 45.075,91 |
| GUZTIRA | | 19.833,40 | 798.117,44 | 817.950,84 |

Diru-zenbateko hori honako finantzaketa-iturri hauekin finantzatzea proposatzen da:

| Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak | Baliabidearen kontzeptua (11) | Sarrera handiagoak / gastuetako bajak | Baliabidearen partziala |
|---|---|---------------------------------------|-------------------------|
| | 1. <u>Diruzaintzako gerakina</u> | 152.857,75 | 152.857,75 |
| | 2. <u>Sarrera berri edo haundiagoak</u> | | |
| 720.01 | F.A.: Uholdeetatik babesteko proiektuaren finantzaketa | 112.624,11 | |
| 720.02 | F.A.: Web orrialderako | 3.000,00 | |
| 780.01 | Jabeak: 44 eta 45-46 G.U. urbanizaziorako | 299.120,05 | |
| 780.02 | Jabeak: 44 eta 45-46 G.U. errenta eta eskubideen balio ordainketarako | 226.627,91 | 641.372,07 |
| 622.443.00.02 | 3. <u>Kredituen deusestapenagatikoko gastuetako bajak</u> S.M.go hilerrian nitxo berriak | 3.887,62 | 3.887,62 |
| GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 798.117,44 | 798.117,44 |



ATAUNgo UDALA

Proposamenari buruzko botu emanketa egin eta Udalbatzak honako erabaki hau hartu du (Aitor Auzmendi Asurabarrena, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika eta Santi Etxeberria Goikoetxeak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorrnsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristainek aurkakoa):

Lehenengo.- Ekitaldi honetako udal-aurrekontuaren barruan, kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, onartzea. Hona hemen espediente horren laburpena kapituluka:

KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kapituluak | Izena | Pezetak |
|----------------|--------------------|-------------------|
| 6 | Inbertsio errealak | 798.117,44 |
| GUZTIRA | | 798.117,44 |

FINANTZAKETA BIDEAK

| Kapituluak | Izena | Pezetak |
|----------------|--|-------------------|
| 7 | 1. Sarrera berriak eta haundiagoak Kapital transferentziak | 641.372,07 |
| 6 | 2. Deuseztatze bajak Inbertsio errealak | 3.887,62 |
| 8 | 3. Diruzaintzako gerakina Aktibo finantzarioak | 152.857,75 |
| GUZTIRA | | 798.117,44 |

Bigarren.- Hamabost egunez jendearen aztergai jartzea, bidezkotzat jotako erreklamazioak egin daitezten. Erreklamaziorik egin ezean, erabaki hau behin-betiko bihurtuko da eta aurrekontu orokorra onartzeko ezarritako gainerako izapide berberak eman beharko zaizkio espediente honi ere.



ATAUNGO UDALA

III.- ATAUNGO UDAL-PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENARI DAGOKION AURRERAPENA.- Ataungo Udal-

Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenari dagokion aurrerapena jasota dagoen agiria aztertu da. Aurrerapen-agiri hori Ana Ezeiza Agirre eta Roberto Garzia Azpiri arkitektuek eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak idatzi dute.

Aipatutako agiria hogeita hamar egunez jendearen aztergai egon eta gero, ondorengo iradokizun hauek aurkeztu dira:

- Agustin Munduate Zurutuza eta Nekane Urdangarin Begiristain..... (S.E.-ko 698 zk.)
- Gipuzkoako gutxitu fisikoen Federazio Koordinatzailearen izenean Norma Andrade (S.E.-ko 747 zk.)
- Jon Goikoetxea Mujika..... (S.E.-ko 755 zk.)
- Javier Dorronsoro Dorronsoro..... (S.E.-ko 756 zk.)
- Jose Antonio Fernandez Ayestaran..... (S.E.-ko 767 zk.)
- Maxima Celaya Letamendia..... (S.E.-ko 768 zk.)
- Jose Manuel Vicuña..... (S.E.-ko 776 zk.)
- Jose Etxebarria Madariaga..... (S.E.-ko 778 zk.)
- Juan Etxebarria Galparsoro eta b.b..... (S.E.-ko 779 zk.)
- Javier Imaz Ayerbe..... (S.E.-ko 780 zk.)
- Haitzarri Elkarteko Zuzendaritzaren izenean Pello Begiristain Begiristain eta b.b..... (S.E.-ko 786 zk.)
- Aiako Auzo Batzarraren izenean Pello Begiristain Begiristain eta b.b..... (S.E.-ko 787 zk.)
- Aiako Auzo Batzarraren izenean Pello Begiristain Begiristain eta b.b..... (S.E.-ko 788 zk.)
- Miguel Agirre Etxabe..... (S.E.-ko 790 zk.)
- M^a Carmen Telleria..... (S.E.-ko 791 zk.)
- Oargi Troskaetaren izenean Pili Imaz Agirre (S.E.-ko 792 zk.)
- Elbarrena auzoko biztanleen izenean Martin Sukia eta b.b..... (S.E.-ko 793 zk.)
- Felipe Apalategui Mendizabal eta b.b... (S.E.-ko 794 zk.)
- Andres Arrondo Barandiaran..... (S.E.-ko 795 zk.)
- Maitane Dorronsoro Aizpurua eta b.b.... (S.E.-ko 797 zk.)
- Artadi Elkartearen izenean Argoitz Galparsoro Jauregi (S.E.-ko 798 zk.)
- Ataungo Batasunaren izenean Aitor Aldasoro Sukia (S.E.-ko 799 zk.)
- Pello Zeberio Merzero (S.E.-ko 800 zk.)



ATAUNgo UDALA

- Milagros Arza (S.E.-ko 801 zk.)
- Jose Benito Apalategi..... (S.E.-ko 802 zk.)
- Silvestre Dorronsoro Ceberio..... (S.E.-ko 803 zk.)
- Vicente Dorronsoro Mintegui (S.E.-ko 804 zk.)
- Asier Auzmendi Arrue eta b.b. (S.E.-ko 805 zk.)
- Victor Oroz Izagirre (S.E.-ko 806 zk.)
- Jon Etxeberria Urbizu (S.E.-ko 807 zk.)
- Manuel Menarguez Abella (mandatari bezala).....
..... (S.E.-ko 819/100/0282 zk.)
- M^a de los Milagros Leturia Goicoechea
..... (S.E.-ko 819/100/0284 zk.)

Batzarburuak adierazi du Aurrerapena idatzi duen taldeak iradokizun guztiei buruzko txostenak egin dituela, kontutan harturik Udal-gobernuaren iritzia interes publikoak interes pribatuarekin uztartzen saiatzea izan dela. Hona hemen txosten horien edukia:

1 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Egokitzat jo da 110' Garapen Unitatearen A azpiunitateari dagokionez 44, 48, 50, 51, 52, 53, 67, 68, 68', 94, 95, 96, 110', 136 eta 138 Garapen Unitateetan Ataungo Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzeko dokumentuan planteatu ziren iritziei eustea.

Bestalde, aurrelaburpen-dokumentuan ez da San Gregorio hilerriaren kokapena edo bertarako sarbidea aldatzeko aukera planteatzen."

2 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Irakokizunean aipatzen dena Aurrelaburpenaren ondorioz egiten diren obrei dagokie eta, horrenbestez, Aurrelaburpenaren norainokoaz kanpo dago. Dena dela, hiri-garapen berriak diseinatzean, indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen irisgarritasunari buruzko irizpideak kontuan hartu dira."

3 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Arrondo auzorako egin den antolamendua aurreko beste proiektu batean jaso zen antolamendua da, Arrondo, Arinberriaga eta Ergoiena auzoetan, Aia auzoaren ekipamendu komunitarioko sistema orokorrean eta Ergoienako landagunearen mugapenean Ataungo Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzeko dokumentuan planteatu zena, hain zuzen ere.



ATAUNgo UDALA

Aldaketa horren bidez, aurreko Arauetan jasotzen zen eraikinen tipologia aldatu nahi zen, besteak beste. Inguru horretarako finkatutako tipologia baztertu eta auzoaren ezaugarri morfotipologikoekin bat egiten zuten familia bakarreko edo familia biko eraikinekin aldatu nahi zen. Ildo honetan, aurkeztutako iradokizunak ez ditu Aldaketa horren helburuak aldatzen eta, ondorioz, egiten den proposamena baiets daitekeela uste dut.

Hala ere, niri iritziz proposamena baldintzatu egin behar da. Planteatutako familia bakarreko eraikin horretako bakar batek eman beharko du errepide aldera, beste eraikina atzeko plano batean eraiki beharko da. Aztergai dugun lursailak 1.500 m² inguruko azalera duen arren, errepidera ematen duen aldeak ez du bi eraikinak behar bezala jasotzeko behar besteko zabalerarik.

Sarbideen sistema arautzeko, eraikinen artean bidezortasuna finkatuko da eta lursailak bakarra izaten jarraituko du."

4 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Proposamena onar daiteke, baldin eta Aurrelaburpenean proposatzen diren forma, aprobetxamendu eta bolumenari buruzko baldintzak mantentzen badira."

5 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Ataungo udalerrirako planteatzen den lurralde-ereduari jarraituz, hiri-garapen berriak gaur egun udalerria osatzen duten auzoen inguruan burutu behar dira. Loturarik gabeko garapen sakabanatuak saihestu behar dira, eta, aldi berean, auzo bakoitzaren nortasunari eutsi behar zaio. Horrenbestez, Aurrelaburpenaren proposamenak ez du auzoetako bakoitza ase nahi; aitzitik, planteatzen den eskema gogoeta eta eztabaida handien ondoriozkoa da eta, izatez, udalerrriaren ikuspegi orokorra izan da nagusi, iradokizuna egiten duenaren ikuspegiak bestelakoa izan bada ere.

Bestalde, iradokizuna idatzi duenak bizitegi-garapen berrietarako egokitzen proposatzen dituen lurralde baliagarriak dira proposatutako eredua bermatzeko eta, horrenbestez, auzo bakoitzaren nortasuna bermatzeko: hala, "Baztarrikak" Arrondo eta Arinberriaga eta San Gregorio bereizten ditu; "Bittor" jatetxearen eta "Kalbario Santua" ermitaren artean dagoen eremuak San Martín eta Astigarraga auzoak definitzen ditu; eta "Sastegi" eta "Bidebieta"



ATAUNgo UDALA

arteko eremuak San Martín auzoa eta industrialdea bereizten ditu.

Agautza ibaiaren beste aldean kokatzen den industrialdeari dagokionez, aditzera eman behar da sarbide-proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Departamentuaren iritzipean jarri dela eta iradokizunean proposatzen den kokapenak -Zubikoetako gasolindegia- oso ahalmen txikia duela. Izan ere, Ibai eta Erreken Lurraldearen Zatik Plan aintzat hartzen badugu eta luraren beraren ezaugarriak kontuan hartzen baditugu, industria-eraikuntzak planteatzeko benetako azalera oso txikia da. Hori dela-eta, ez da batere bideragarria industria-aprobetxamendu txikiarekin zubi bat eraikitzea eskatuko duen obra.

Bestalde, iradokitzen den bide-proposamena -Zubikoetako gasolindegia- pareko industrialdea San Martín auzoarekin lotzea eta, hala, hiri-lerro jarraitua osatzea- ez dator bat proposatzen den lurralde-ereduarekin, goraxeago adierazi den bezalaxe.

San Martinerako proposatutako antolamenduari dagokionez, "Botika" izeneko eraikinaren fatxadaren baldintzak alda daitezke eta eraikin horrek gaur egun duen etxebizitzakopurua baino kopuru handiagoa izan dezake eta, hala, aztergai dugun fatxada aldatuko litzateke. Bestalde, "L" itxurako oin-planoa erraz ebatz daiteke eta historian hamaika dira mota honetako formak.

Azkenik, Ataungo Udalaren hirigintza-arloaren kezketako bat Burutzapen Unitateen dimentsionamendua izan da eta horren lekuko dugu Arrondo, Arinberriaga eta Ergoiena auzoetan, Aia auzoaren ekipamendu komunitarioko sistema orokorrean eta Ergoienako landagunearen mugapenean Ataungo Plangintzako Arau Subsidiarioak aldatzeko dokumentua. Izan ere, bertan planteatzen diren kudeaketa-unitateak ia jabe eta proiektu bakar bati dagozkio. Iradokizuna egiten duenak ez du zalantzarik izan behar burutzapen-unitateen jabetzen dimentsioa eta egoera aintzat hartuko direla unitateak mugatzerakoan."

6 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako iradokizunean, aldaketa horrek guztira 27 etxebizitza xedatzen zituela gogorarazi ondoren, Aurrelaburpenean grafiatzen den antolamenduan 18 etxebizitza soilik aurreikusten direla eman du aditzera. Hori dela-eta, orain jendaurrean jarri den dokumentuaren



ATAUNgo UDALA

aurreikuspenak onartutako aldaketara egoki daitezen eskatzen du, bestela plangintza aldatzearen ondoriozko erantzukizun ekonomikoa sortuko baita.

Aditzera eman den bezalaxe, eraikuntza eta urbanizazioko obrak amaitzeko gehienezko epea 5 urtekoa zen. Nahiz eta hirigintza-fitxak 30 hilabeteko epea jasotzen duen, Celaya andrearentzat eperik onena hartu da aintzat. Nolanahi ere, epe hori arauen aldaketa behin betiko onartzen zenean hasten zenez gero, 2002ko martxoaren 11n amaitzen zen. Hortaz epea gainditu egin da.

Bestalde, lurzorua araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 41. artikulua ezartzen duenez, aprobetxamendua murriztea dakarren plangintzaren aldaketak edo berraztertzeak ez ditu beti kalte-ordainak eragingo. Obrak esparrua burutzeko aurreikusitako epeak amaitu aurretik bukatzen direnean edo, Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz, epe horien barruan amaitu ezin direnean, soilik, sortuko dira kalte-ordainak. Adierazitako kasu horietako bat ere betetzen ez denez gero, esparruak garatzeko finkatutako gehienezko epea amaitu ondoren, berraztertzearen dokumentuak ez du zertan aldaketa horretan finkatutako aprobetxamenduak errespetatu, eta Ataungo Udalak ez du kalte-ordaina eman beharrik."

7 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurrelaburpen-dokumentuan jasotzen den proposamenaren bitartez dentsitate txikiko bizitegi-garapena planteatu nahi da San Martin auzoan. Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusten den garapena nolabait ordezkatu nahi da; izatez, garapen hori ez da gauzatu, unitate horrek jabe-kopuru handia du eta 37 etxebizitza batera ateratzea planteatzen zen.

Ildo honetan, familia biko 7 eraikinetan 14 etxebizitza garatzea planteatzen da. Hala, unitatearen jabetzaren egiturak eta dimentsioak ez dute eragotziko etxebizitza horien garapena. Hori dela-eta, ez da beharrezkotzat jotzen hasiera batean aurreikusitako etxebizitza-unitateen kopurua eta azalera gehitzea.

Nolanahi ere, bidezkotzat jo da proposatutako antolamendua aldatzea, etorkizunean proposatutakoaren gisako garapenak ez eragozteko."



ATAUNgo UDALA

8 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurrelaburpen-dokumentuan egindako antolamendua aztertu ondoren, egokiagotzat jo da adierazitako eraikinetako azkena -hilerrira joateko noranzkoan lehena- deuseztatzea, familia biko eraikin bat hartzeko lursail txikiegian baitago.

Horrenbestez, eta zeharka, iradokizuna egiten duenaren lurretan dauden hiru eraikinek burutzapen-unitate bakarra osatuko dute."

9 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, bideragarritzat jo da bidea goraxeago eramatea eta, hala, ahal den neurrian "Dornainenea" etxearen baratzearen atzealdea errespetatzea."

10 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako iradokizuna aztertu ondoren, eta bidea goraxeago egiteko aukera planteatu denez gero, proposatutako iradokizuna baiets daitekeela uste dut. Sarbidea eta "Lutzienea" etxearen atzealdeko baratzea mantenduko lirake."

11 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aralarko Parkearen esparruaren barruan Aurrelaburpenak proposatzen dituen erabilerak bat datoz gauzatzen ari diren Arau Subsidiarioen Aldaketarekin eta Aralarko Parkearen Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren Aldaketarekin. Gainera, bat datoz 1997ko martxoaren 26ko Udal Osoko Bilkurak Ataunerako onartu zuen Garapen Ekonomikoko Planarekin. Izan ere, bertan proposatzen zen Lehen Sektorea sustatzea -gutxienez gaur egungo lanpostu-kopurua mantentzeko-, Bigarren Sektorea garatzea -ura botilaratzeko planta bat ezartzea eta Zubikoetako industrialdea garatzea- eta garapen-ardatz berri bat bideratzea: sektore turistikoa. Azken horretarako, Jose Migel Barandiaran zenaren irudi adierazgarri eta historikoa, ondare arkeologikoa eta kulturala eta naturagunearen baldintza paisajistikoak hartuko ziren oinarri.

Bestetik, planteatzen diren prozedurazko irizpideak Aurrelaburpen baten berezko alderdietatik kanpo daude. Nolanahi ere, adierazitako Arau Subsidiarioen Aldaketa jendaurrean izan zen Aurrelaburpenaren fasean eta hasierako onarpenaren fasean eta Aralarko Parkearen Natur Baliabideak Antolatzeko Planaren kasuan hainbat organismok hartu dute



ATAUNgo UDALA

parte. Hortaz, bermatu egiten da eztabaida herritarrei zabalitzea (komunikabideetara ere heldu da)."

12 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Hiri-plangintzak ezin du etxebizitza berriei, denborari dagokionez, eman beharreko erabilera bermatu eta ezin du eskatutako lehentasuna finkatu.

Bestalde, Aurrelaburpenak gaur egun dauden eraikinak finkatzea proposatzen du, eta honek beren birgaikuntza dakar zeharka."

13 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, aparkaleku-zuzkidura gehiegizkotzat jotzen da auzoan guztira aurreikusten diren hamabi etxebizitzetarako. Ildo honetan, egokitzen jotzen da aurrelaburpen-dokumentuan aurreikusten den dimentsioa eta antolamendua."

14 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, bidezkoa irizten zaio memoria historikoa gordetzeari eta "Errota-Zaharra" izeneko eraikina eta bere inguruko lurak finkatzeari.

Burutzapen unitateak behin betiko dokumentuan definituko dira. Hori dela-eta, hemen ezin da lur horiek unitate bakar bat osatzea bermatu."

15 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Arau Subsidiarioen aurrelaburpen-dokumentuaren helburuetako bat San Martin auzoari gaur egun ez duen hiri-egitura ematea da eta horretara, hain zuzen ere, zuzentzen da aurreikusten den antolamendua. Iradokizunean egiten den proposamena, ordea, planteatutako helburuaren aurkakoa da eta, gainera, udalaren jabetzako lurretan babes publikoko erregimenen batean etxebizitzak garatzea eragotziko luke, iradokizunean lur horietan urbanizazio-jardunak soilik proposatzen baititu.

Errota Berri eta Berrain inguruetan bizitegi-garapenak planteatzen dira eta hau ere Aurrelaburpenaren helburu nagusietako baten aurkakoa da, gaur egungo herriguneez kanpo bizitegi-hazkundeak saihestu nahi baitira, hazkunde hauek herriguneeen inguruetan sustatzeko.

Ibai-bazterreko pasealekua bertan behera uzteko proposamena baiets daiteke, bertatik hurbil alternatiba bat badago-eta. Nolanahi ere, iradokizuna aurkezten duenaren jabetzako bordak bi metrotara estutzen du oinezkoentzako zubiaren pasabidea. Pasabidearen zabalera hori askieza denez gero,



ATAUNgo UDALA

ezinbestekoa da borda botatzea. Dena dela, aurrealdeko lorategia mantendu ahal izango da, baldin eta 5 metroko zabalerako pasabide librea bermatzen bada."

16 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Lehen alderdiari dagokionez, adierazi behar da Lareoko urtegiaren inguruan erabilera turistikoak planteatzen dituen Arau Subsidiarioen aldaketa bitan izan dela jendaurrean eta, era berean, komunikabideetara ere helarazi dela. Horrenbestez, ekimen honen inguruan isilean ibiltzearen salaketa ez da zuzena.

Bigarren alderdiari dagokionez ondokoa eman behar da aditzera:

- Ingurumenari kalterik ez eragitea bermatuta dago. Proiektua gauzatzeko ezinbestekoa da ingurumenean eraginik ez dela eragingo bermatuko duten hainbat neurri hartzea, lurpeko uretarako iragazkortasuna, zuhaiztia mantentzea, gaur egungo sarbideak mantentzea eta abar.
- Planteatzen den turismoak Atauni zer ekarriko dion baloratzea guztiz subjektiboa denez gero, ez dugu baloratuko.

Arau Subsidiarioen aldaketan planteatzen den lanpostuen kopurua sektoretik datozen datuetan oinarritzen da eta datu horiek fidagarriak dira."

17 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Industria-erabileratara zuzentzen den lurzorua murriztea egoki hartzen bada ere -batik bat "Zubikoeta" inguruak, sortzen duten begi-inpaktua dela-eta-, ez da bidezkoztat jotzen bizitegi-erabilerak eta industria-erabilerak nahastea, iradokizunari jarraituz ondoriozta daitekeen moduan. Gainera, planteamendu hori Aurrelaburpenaren oinarritzko helburuetako baten aurkakoa da, gaur egungo herriguneez kanpo bizitegi-hazkunde isolatuak saihestea, hazkunde hauek herriguneeen inguruan sustatzeko."

18 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"J.M. Barandiaran interpretazio-zentroari dagozkion lanak, programaren eta beren premien definizioaren garapenari dagokionez, nahikoa aurreratuta daudenez gero eta lanak burutzeko "Munduate" izeneko eraikinaz baliatzea ezinbestekoa ez dela ikusirik, ez da premiazkoa baserria ekipamendurako kalifikatutako eremuan mantentzea."



ATAUNgo UDALA

19 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, aukera hori aurreikus daitekeela uste da, betiere baserria zein inguruko lurrak 5. HEE barruan barne hartuta."

20 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Hasteko argitu egin behar da Olasagasti inguruko ibaiaren bazterra eta pasealekua suspertzea ez dela ibaiari zuzendutako eraso bat eta ez dela ibairako hurbilerraztasuna deuseztatzen. Aitzitik, proposatzen den jardunak ibai-bazterrak errespetuz suspertzea dakar, ibaia herritarrentzako, oro har, hurbilerraz dagoen elementu bihurtuz. Halaxe berresten dute ibai-bazterretan gauzatu diren azken jardunek. Nolanahi ere, dagokion Urbanizazio Proiektuan ibai-bazterreko pasealekuaren baldintza zehatzak eta tratamendua jasoko da, betiere Uren Lurralde Zerbitzuak ezartzen dituen irizpideei jarraituta.

Herribidea mantentzeari dagokionez, aditzera eman behar da aurrelaburpen-dokumentuan bertan herribidearen trazadurari buruzko proposamen bat jasotzen dela eta berau mantentzearen borondatea argia dela. Bestalde, ubidea martxan jartzeko proiektu bat dago; alabaina, honen erabakia Aurrelaburpen baten zehaztapenez kanpo geratzen da.

Iradokizunean aipatzen den bordak proposatutako antolamenduan zuzenean eraginik ez badu ere, Lauztierrekarako errepidea estutu egiten du. Bide-sistemaren ikuspuntutik, beraz, gomendagarria da borda hau botatzea. Izan ere, borda mantenduz gero, errepideak gune honetan gehienez ere 4,40 metroko zabalera eraginkorra izango luke, eta zabalera horretan ez da erraza bi ibilgailu gurutzatzea. Bestetik, eraikinaren dimentsioak kontuan izanik, ez dirudi museo-motaren baten funtzioak betetzeko ahalmena izatea.

Azkenik, adierazi behar da Aurrelaburpena lantzean aintzat hartu den irizpideetako bat Ataungo udalerrriaren eta bere auzoetako bakoitzaren nortasuna mantentzea izan dela eta, hori dela-eta, gaur egungo errealitatearekiko proposamen orekatua planteatu dela."

21 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako iradokizunei dagokienez ondokoa adierazi behar da:



ATAUNgo UDALA

- Ez da Lareoko inguruaren birkalifikaziorik egiten, urtegitik kilometro ingurura dauden lurren birkalifikazioa egiten da (gutxienez 200 metroko aldea exijitzen da) eta bideratzen ari den natur baliabideak antolatzeko planaren aldaketak birkalifikazio hori bermatzen du.
- Natur baliabideak antolatzeko planaren, plan bereziaren eta Arau Subsidiarioen aldaketaren ondorioz hartu beharreko neurri zuzentzaileek bermatu egiten dute kalte ekologikorik ez sortzea.
- Ostalaritza-erabilerak planteatzen diren eremua basogunea da eta ez du abeltzaintzan eraginik sortzen. Zalantzan jar daitezke abeltzaintzaren sektoreari eragiten zaizkion kalteak.
- Herrien nortasunak alda daitezke eta horretarako ehun ekonomikoa eta sozialaren aniztasuna aurreikusi behar da. Aldi berean, lehen sektorearekin batera beste sektore batzuk garatu behar dira, betiere jasangarritasunaren irizpideekin.

Kultur errealitatea elementu osagarria da eta Ataunen kultur errealitatea kanpora zabaltzea eta kanpoan ezagutaraztea dakar."

22 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Industria-lurzoruari dagokionez, bidezkoa irizten zaio gaur egungo industrialdearen jarraipen gisa planteatzen den industrialdea deskalifikatzeari, honek inpaktu handia sortuko bailuke errepidetik.

Etxebizitzari dagokionez, berriz, Aurrelaburpenean batera bidera daitezkeen bi jardun-ildo jorratzen dira. Batetik, gaur egun dauden etxebizitzak, hutsik daudenak eta erabiltzen direnak, birgaitzea proposatzen da eta posible den eraikinetan etxebizitzaren kopurua gehitzea ere baimendu ahal izango da. Bestetik, etxebizitza berriak eraikitzea proposatzen da, hala auzoetako bakoitza egituratzeko, etxebizitzaren merkatua ez zorrozteko eta etxebizitza publikoko jardunak aurreikusteko, eta hau guztia ezinezkoa da gaur egun dauden etxebizitzak mantendu eta birgaitzearekin. Birgaitzeko politikak egin daitezkeen arren, horien eduki zehatza aurrelaburpen-dokumentuaren beraren zehaztapenez kanpo dago.



ATAUNgo UDALA

Gainerako gaiei dagokienez ondokoa zehaztu behar da:

- Udalerrriaren osotasunean bizitegi-erabilerara eta industria-erabilerara zuzentzen den lurzorua guztizko lurzoruaren %0,56 da (landaguneko lurzoru urbaniza ezinak barne). Horrenbestez, nekazaritza, abeltzaintza eta baso-lanetako erabilerei eta Aralarko Parkeari lurzoruaren %99,44 zuzentzen zaio. Azken erabilera horietara zuzentzen den lurzorua nahikoa dela uste da.
- "Sara" -eraikin bereizgarri gisa- eta bere ingurunea - ekipamendu, aisialdi eta kulturako gune gisa- berreskuratzea garrantzi handikoa da Ataunek kanpora begira izango duen proiektiorako eta herria suspertzeko. Nolanahi ere, honek ez du eragozten jardun honekin batera San Gregorio errota birgaitzea. Izatez, errota honek interes handia du udalerriko kultur eskaintza eta ondare-eskaintza areagotzeko.
- Aurreikusten den eremu librean osotasunak 10.244 m²-ko azalera hartzen du, hau da, 5,69 m² biztanleko, betiere etorkizunean 1.800 biztanle izango dituela aintzat hartuta (gaur egungo biztanleak kontuan izanik, 6,61 m²/bizt.). Dena den, adierazi behar da eremu libre horien artean ez direla oinezkoentzako ibilbideak eta Aralarko Parkearen eremu handi hori barne hartu. Aurrelaburpeneko zuzkidurak indarrean dagoen hirigintza-legerian eremu libreetarako ezartzen den gutxieneko zuzkidura gainditzen duenez gero, Aurrelaburpenean jasotzen den proposamena nahikoa dela uste dugu.
- San Martinen Kultur Etxea bat eraikitzea ez da beharrezkotzat hartu, gaur egun eskaintza hori nahikoa beteta dagoelakoan gaude-eta.

Iradokizuna "Sara" eta bere ingurunea berreskuratzekeo proiektuari dagokiola ulertuta, aditzera eman behar dugu proiektua ez dela eraikuntza berrien ugaltze gisa planteatzen. Aitzitik, eraiki beharreko eraikuntzek ahalik eta gehien errespetatu beharko dute beren ingurunea, ingurunea bera balioz hornitzearren hain zuzen ere. Ildo honetan, esan behar da proiektu hau ez dela eraikuntza-dimentsioengatik "makro-ekipamendu" bat edo "makro-proiektu" bat, beren esanahiarengatik baizik.



ATAUNgo UDALA

23 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Lehen iradokizunari dagokionez, Arrondorako zehaztapenak biltzen dituen Arauen Aldaketan -Aurrelaburpenean jasotzen da Aldaketa honen edukia- iradokizuna egiten duenarenak ez diren lurak ere barne hartzen dira 129.3 Garapen Unitatearen barruan eta ez du zentzurik unitate honen barruan egotea. Horrenbestez, Arau Subsidiarioen behin betiko dokumentuan alderdi hori berraztertuko da.

Bigarren iradokizunari dagokionez, gaur egun espaloi batek izan behar duen gutxieneko zabalera librea 2,00 metrokoa da, eta Aurrelaburpenean planteatzen den antolamendua ikusirik, bidezkoa irizten zaio aztergai dugun lursail honetako espaloi-tartean gutxieneko zabalera hau planteatzeari, betiere inolako eraikuntza-eskubideak gehitu gabe."

24 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurrelaburpen-dokumentuan bezalaxe, eraikuntza hau "antolamenduz kanpoko" izendatzearen arrazoia argia da, GI-120 errepidea estutu egiten du eta gune horretan ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa arriskutsu bihurtzen du.

Eraikuntzari dagokionez, hauxe da Aurrelaburpenean planteatzen den helburu nagusia: eraikuntza hau ordezkatzeko aukera ematea eta honen ordezkalearen sekzioa zabaltzeko eta bertatik ibilgailuek eta oinezkoek arriskurik gabe zirkulatzeko aukera emango duen beste bat eraikitzea. Horretarako epeak behin betiko dokumentuan definituko dira.

Azkenik, eraikuntza baldintza egokietan mantendu ahal izateko teilaberritzeko eskaera dokumentu honen helburu eta zehaztapenez kanpo dago."

25 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Larrainea" izeneko eraikinaren atzean eta "Mekolalde" eremuan bizitegi-eraikuntzak aintzat hartzeko proposamenak aztertu egin dira Aurrelaburpena lantzeko prozesuan zehar eta ezetsi egin dira baldintza orografikoen ondorioz. Izan ere, baldintza orografikoek eragotzi egiten dute eraikuntzak bertan ezartzea, baita bertan egin daitezkeen sarbideen eraikuntza ere.

"Zelabear" esparruaren antolamendua ezetsi egin da, Agauntza ibaiaren urbazterrean gehiegizko okupazioa sortzen



ATAUNgo UDALA

du eta bideragarritasun txikia du. Izan ere, besteak beste eremuaren sustapenaren kargura eraiki beharko litzateke sarbiderako zubi berria. Nolanahi ere, aukera hau ez da etorkizunerako baztertu nahi, "Olalde" izeneko eraikinen multzoaren atzealdean planteatu den bideari -zaku-hondoan amaitzen denari- jarraipena eman dakioke eta "Zelabear" eremuarekin lot daiteke.

"Tellazpi" eta "Tellerdi" eremuetan bizitegi-eraikin gehiago eraikitzea ez da, hasiera batean, egokitzen jotzen, San Gregorio herrigunearen mugetatik ateratzen da eta Aurrelaburpenaren helburuetako bat gaur egungo herriguneari dauden moduan gauzatzea da.

"Iturritza" izeneko esparruan aisialdi-eremua aurreikusteari dagokionez, alternatiba hori baliagarria izan daiteke, eremu honek "Baztarrikako" eremua definitzerakoan kontuan izan diren funtzio berak bete baititzake.

Azkenik, hiri-eremuak pinudietatik babesteko araudia sortzea behin betiko dokumentuan aztertuko da."

26 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Barberoenea" eraikinerako proposamenean gaur egun indarrean dagoen xehetasun-azterlan baten antolamendua islatzen da. Xehetasun-azterlan horretan eraikina bi metro inguru atzeratzen da gaur egungo lerrokadurari dagokionez. Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren bidezkoztat jotzen da berau aintzat hartzea. Behin betiko dokumentuan definituko dira, ordea, eraikinaren lerrokaduraren baldintza zehatzak.

Aitzitik, gaur egun ez zaio bidezkoa irizten Arrondo auzoan aurreikusten den etxebizitzaren kopurua gehitzeari. Dena dela, adierazitako lurrak "erreserba" gisa utz daitezke etorkizuneko bizitegi-hazkundeetarako."

27 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Egiten den iradokizuna aztertu ondoren eta bidea goraxeago lekualdatzeko aukera planteatu denez gero, egindako proposamena baiets daitekeelakoan gaude eta, hala, biltegi-garaje gisa erabiltzen diren eraikinen zati bat eta eraginpeko baratzeen zati bat mantendu ahal izango dira. Bestalde, ildo bereko beste iradokizun bati jarraituz ere, bidezkoa irizten zaio planteatutako oinezkoentzako bidea bertan behera uzteari."



ATAUNgo UDALA

28 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Lehen puntuari dagokionez, aditzera eman behar da Lareotik hurbil ostalaritza-erabilerak ezartzea baimentzen duen Arau Subsidiarioen Aldaketaren zehaztapenak garatzeko Plan Berezi bat egin behar dela eta, aldi berean, hainbat neurri zuzentzaile hartu behar direla, faunan, floran, egitura geologikoan, baliabide hidrologikoan eta beste hainbat esparrutan eragina ahalik eta txikiena izan dadin bermatzeko.

Aipatu dugun Arau Subsidiarioen Aldaketak hasierako eta behin-behineko onespena jaso du eta, beraz, jendearen sostengua duela islatzen da.

Aldaketak planteatzen duen proposamenak, Aurrelaburpenean jaso denak alegia, ez du eragozten proiektu honekin batera garapen ekonomiko eta sozialerako beste proiektu osagarriak planteatzea."

29 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Baztarrika" izeneko lurren kalifikazioa berraztertzeari dagokionez, bertan nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenerako proiektu bat dagoenez gero, eta, beste iradokizun baten ondorioz, aisialdi-eremurako baliozko alternatiba bat dagoenez gero, bidezkoa izan daiteke lurra nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerarekin lotzen den erabilera eta jarduerako erregimen batekin kalifikatzea.

"Aierdienea" izeneko eraikinaren ingururako aurreikusitako antolamendua aldatu egiten da, hasiera batean bota behar zen "Errota-Zaharra" etxea finkatzearen ondorioz. Bestalde, San Martin auzorako aurreikusitako antolamenduak ez ditu soilik jabetzaren egituraren ondoriozko baldintzak aintzat hartu behar, kasu honetan batez ere hiri-egiturako irizpideak, aparkaleku-zuzkidura, bide-sistema, espazio publikoa gauzatzea eta abar hartu behar da kontuan. Ildo honetan, adierazi behar da aurkeztutako iradokizunak ez dituela beste baldintzatzaille horiek kontuan; aitzitik, espazio publikoaren forma desitxuratzen du, eta hiri-garrantzia kentzen dio "Aierdienea" eraikinari berari.

Azken alderdiari dagokionez, hasiera batean huts-egite baten ondorioz adierazitako bizitegi-eraikina jaso ez bazen ere, ez dago nahikoa justifikatuta bere kokapena aldatzea."

30 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"San Martin auzoaren goialderako sarbideak behar bezala ebazteko funtsezkoa da bide-sistema eta trafikoa "Paskual



ATAUNgo UDALA

Iturri" izeneko esparruan berrantolatzea eta Hilerrirako sarbidea berrantolatzea. Aurrelaburpenean jasotzen den antolamendurako alternatiba egokia izan daiteke aldi berean egongo diren esparruak planteatzeko proposamena.

Aurrelaburpenean islatzen den proposamena baliagarria izanik ere, aztergai dugun esparru honen antolamendua berrazter daitekeela uste dut."

31 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Proposatutako antolamendua ez ezik, 17. HEEari dagozkion beste hainbat iradokizun ere kontuan izanik, bidezkoagotzat jotzen da aurkeztutako antolamendua aldatzea, betiere gaur egun etxebizitza eta baratzeen eta mendi-mazelaren artean dagoen eremuan eraikitzeko aukera mantenduz. Horrela, atzealdeko baratze gehienak mantentzen dira eta ia erabat deuseztatzen da iradokizun honetan ordezkatuta dauden interesatuen gaineko eragina."

32 zenbakiko iradokizunaren **IRITZIA:**

"Aurkeztutako iradokizuna aztertuta eta bidea goraxeago eramateko aukera planteatu dela kontuan izanik, aukera hau baiets daitekeelakoan nago.

Era berean, 17. HEEaren berrazterketan "Domekaenea" etxean ahalik eta eraginik txikiena sortzea planteatzen da. Nolanahi ere, bidearen trazadura Errepideei buruzko Foru Arauaren edukia baldintzapean izango da beti."

Aztergai honen eztabaidan sarturik, Aitor Aldasorok aditzera eman du kasu gehienetan bat datozela Aurrerapena idatzi duen taldeak iradokizunen gainean egindako txostenekin, baina hala ere aurrerapen-agiriari ezin diote baiezkorik eman, Lareo inguruari eta Baztarrikako lurzatiei eman zaien tratamendua kontuan harturik. Horrez gain, Artzanenearen kasuan ere ez daude konforme.

Hori horrela, Udalbatzak, Aurrerapena idatzi duen taldeak egindako txostenekin bat eginda, ondorengo erabaki hauek hartu ditu (Aitor Auzmendi Asurabarrena, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika eta Santi Etxeberria Goikoetxeak aldeko botua eman dute, eta Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorronsoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristainek aurkakoa. Hortaz, batzarkideen legezko kopuruaren gehiengo osoak aldeko botua eman du.):



ATAUNgo UDALA

Lehenengo.- 1) Adierazitako eraikuntza aintzat hartzeko iradokizuna baiestea proposatzen da. Gainerako guztia ezetsi egin da.

2) Aurkeztu den iradokizuna baiestea proposatzen da.

3) Iradokizuna adierazitako baldintzekin baiestea proposatzen da.

4) Iradokizuna adierazitako baldintzekin baiestea proposatzen da.

5) Proposatutako lurralde-ereduari dagokionez planteatutako iradokizunak ezestea proposatzen da. Burutzapen Unitateak definitzea Aurrelaburpenaren xede ez bada ere, behin betiko dokumentuan unitate horiek mugatzean jabetzaren egitura eta dimentsioa hartuko da kontuan.

6) Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

7) Egindako proposamena ezestea proposatzen da. Hala eta guztiz ere, bidezkoztat jo da proposatutako antolamendua aldatzea, etorkizunean proposatutakoaren gisako garapenak ez eragozteko.

8) Antolamendu-irizpidearen aldaketen ondorioz, aurkeztutako iradokizuna zeharka baiestea proposatzen da.

9) Aurkeztutako iradokizuna baiestea proposatzen da.

10) Egiten den iradokizuna baiestea proposatzen da. Astigarragako antolamendurako aurreikusten den bidea lekualdatu egingo da eta sarbidea eta baratzea gaur egun bezalaxe mantenduko dira.

11) Aurkeztutako iradokizunak ezestea proposatzen da.

12) Aurkeztutako iradokizunak ezestea proposatzen da. Azpimarratuz, gaur egun dauden etxebizitzaren birgaikuntza Aurrelaburpenean zeharka jasotzen dela eta zehaztasun handiagoaz definituko dela behin betiko dokumentuan.

13) Aurkeztutako iradokizuna ezestea proposatzen da.

14) Aurkeztutako iradokizuna baiestea eta, hortaz, "Errota-Zahar" izeneko eraikina finkatzea proposatzen da; gainerakoa ezetsi egiten da.

15) Iradokizuna zati batean baiestea proposatzen da. Hau da, ibai-bazterreko pasealekua bertan behera uztea baiestea proposatzen da, baita aurrealdeko lorategia mantendu ahal izatea ere, baldin eta 5 metroko zabalerako pasabide librea bermatzen bada. Gainerakoa ezetsi egiten da.



ATAUNgo UDALA

16) Aurkeztutako iradokizunak ezestea proposatzen da.

17) Industria-lurzoruetara zuzendutako lurzorua murrizteari dagokion iradokizuna baiestea proposatzen da. Gainerakoa ezetsi egiten da.

18) Iradokizuna baiestea proposatzen da eta "Munduate" izeneko eraikina ekipamendurako kalifikatutako eremuaz kanpo geratzea proposatzen da. Esparru horren mugapen zehatza behin betiko dokumentuan jorratuko da.

19) Aurkeztutako proposamena baiestea proposatzen da, behin betiko dokumentuaren esku geratuko litzateke 5. HEE barruan barne hartu beharreko lurren mugapen zehatza. Hala, Etxeberri-Haundi baserriaren inguruan familia biko eraikin bat eraiki ahal izango litzateke.

20) Aurrelaburpenean dagoeneko planteatu den proposamena denez gero edo dagoeneko martxan dagoen jardun bat denez gero, baietsi egin da herribidea mantentzeari eta ubidea martxan jartzeari buruzko iradokizuna. Gainerakoa ezetsi egin da.

21) Aurkeztutako iradokizunak ezestea proposatzen da.

22) Industria-erabileretara zuzendutako lurzorua murrizteko iradokizuna baiestea proposatzen da. Gainerakoa ezetsi egiten da.

23) Iradokizuna unitatearen mugapenari dagokionez baiestea proposatzen da. Gainera, aztergai dugun lursailaren espaloi-tartean bi metroko zabalera duen espaloia planteatzea proposatzen da. Gainerakoa ezetsi egiten da.

24) Aurkeztu den iradokizun honi buruz aditzera eman behar da "Antonione-Azpikoa" izeneko eraikinerako aurrelaburpen-dokumentuaren helburu nagusia eraikuntza hau ordezkatzeko aukera ematea eta honen ordezkalearen sekzioa zabaltzeko eta bertatik ibilgailuek eta oinezkoek arriskurik gabe zirkulatzeko aukera emango duen beste bat eraikitzea izango da. Horretarako epeak behin betiko dokumentuan definituko dira.

25) Aurkeztutako iradokizunaren bi alderdi baiestea proposatzen da: batetik, aisialdi-eremua "Iturritzan" aurreikustea, "Baztarrikako" eremurako alternatiba egokia izan baitaiteke, eta, bestetik, hiri-eremuak pinudietatik



ATAUNgo UDALA

babesteko araudia sortzea, behin betiko dokumentuan aztertuko da alderdi hau. Gainerako ezetsi egin da.

26) "Barberoenea" eraikina inguruko espazioarekin bat datorren eraikin batekin ordezkatzeko aukera baiestea proposatzen da.

27) Egindako iradokizuna baiestea proposatzen da, Astigarragako antolamendurako aurreikusitako bidea lekualdatu egingo baita.

28) Aurkeztutako iradokizunak ezestea proposatzen da.

29) "Baztarrika" izeneko lurren kalifikazioa aldatzeko aukera berraztertzeari buruzko iradokizuna baiestea proposatzen da, baita Victor jatetxearen inguruko bizitegi-eraikuntza ezartzeari ere, indarrean dagoen Xehetasun Azterlanean aurreikusten den bezalaxe. Gainerakoa ezetsi egin da.

30) Hasiera batean Aurrelaburpenean proposatutako antolamendua mantentzea proposatzen da. Gune hori "koexistentzi" eremu bezala antolatzeko proposamena behin betiko dokumentua lantzean hartu beharko da aintzat.

31) 17. HEE bere horretan mantentzeko iradokizuna ezestea proposatzen da; dena dela, bidea mendirantz lekualdatzea planteatzen da, finkatutako eraikinei eta jabetzei ahalik eta eragin txikien sor dakien.

32) Iradokizuna zati batean baiestea proposatzen da, GI-120 errepidearekiko bide paraleloa mendirantz eramango da eta "Domekaenea" etxearen lurretan ahalik eta eraginik txikiena eragingo da.

Bigarren.- ATAUNGO UDAL-PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOAK BERRAZTERTZEKO AURRELABURPENAREN dokumentua onartzea, betiere aurreko erabakian adierazten diren iradokizunak baiestearen ondoriozko aldaketak egin ondoren.

Hirugarren.- Talde idazleari behin betiko dokumentua idatz dezan agintzea.

IV.- UDALETXERAKO SARRERA ERRAZTEKO ERABERRITZE-LANAK ETA KOMUN PUBLIKOEI DAGOZKIEN OBRAK KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

Udaletxerako sarrera errazteko eraberritze-lanak eta komun publikoei dagozkien obrak lehiaketa bidez kontratatzeako klausula administratiboen pleguaren berri eman du Alkatetzak. Lehiaketako prozedura irekia izango da eta tramitazioa, berriz, premiazkoa.



ATAUNgo UDALA

Lan horiek honako modu honetan finantzatuko dira: aurtengo aurrekontuan 90.151,82 euro izendatu dira, eta 2003. urteari begira, 139.538,63 euroko konpromiso-kreditua onartu beharko da.

Horrela, bada, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du:

Lehenengo.- 2003. urterako 139.538,63 euroko konpromiso-kreditua onartzea.

Bigarren.- Klausula administratibo berezien plegua onartzea. Hona hemen bere edukia:

"UDALETXEAN AKZESIBILITATE-ERREFORMA ETA KOMUN PUBLIKOAK EGOKITZEKO PROIEKTUA BURUTZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ ETA LEHIAKETA BIDEZKO ADJUDIKAZIO MODUAN KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA.

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Espedientean jasotako eta kontratu-izaera edukiko duen dokumentazio teknikoarekin bat etorriz, Udaletxean "**Aksesibilitate-Erreforma eta komun publikoak**" egokitzeko proiektuari dagozkion lanak burutzea da plegu honetan oinarrituz egin dadin kontratuaren helburua. Aipatu proiektua, J.J. Ugarte eta C. Otermin arkitektoek erredaktaturikoa da.

2. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa **BERREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (229.690,45,-)**koa izango da. Dena den, lehiatzaileek diru-kopuru txikiagoko eskaintzak ere aurkez ditzakete. Eskaintza bakoitzean Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) sarturik dagoela ulertuko da. Horrez gain, kontzeptu biak, hau da, kontratuaren prezioari eta BEZri dagokienak, bereizturik adierazi beharko dira.

Kontratuaren egiterapen aldian indarrean egongo diren prezio unitarioen zerrenda sartuko da kontratuaren prezioan. Prezio horiek ez aurkeztuz gero, lehiatzaileak udal-aurrekontuko berberak aportatzen dituela ulertuko da, bere proposamen ekonomikoan jasotako jaitsieraren ehuneko berdinean afektatuko dielarik.

3. LANAREN ORDAINKETA

Proiektuari herstuki loturik egindako lana eta Udalaren baimenarekin egindako aldaketak ordainduko zaizkio kontratistari, hitzartutako prezioen arabera.

Zuzendari aginpidedunak luzatu eta kontratistak sinatutako **hileroko egiaztapen** bidez egingo da ordainketa; egiaztapen horiek epe horretan egindako lanari dagozkionak izango direlarik.



ATAUNgo UDALA

4. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko finantzaketa-bidea **LAUROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAICA EURO ETA LAUROGEITA BI ZENTIMO (90.151,82,-)** aurtengo udal-aurrekontuan aurrikusia dago. Gainontzeko **EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA HIRU ZENTIMO (139.538,63,-)**k 2003rako konpromezu kreditu baten bidez.

5. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan preziorik ezingo da berraztertu.

6. EGITERAPEN-EPEA

Kontratazio honen xede diren lanak egiteko epea **BOST HILABETEKOA** izango da, zegunketaren egiaztapen-agiria izenpetu eta hurrengo egunetik kontaturik.

Adierazitako epea igarotakoan, kontratista berandutza egoeran sartuko da. Udalak kontratistari ez du zertan epea betetzeko aurrez exijitu beharrik.

7. BERMEAK

Behin-behingo bermea dispentsatua geratzen da, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 35 eta 135.1 artikuluetan xedatutakoaren babespean.

Kontratuaren adjudikatariak, bere gain hartutako eginbeharrak beteko dituela bermatzearen, **BEDERATZI MILA EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO (9.188,-)**ko **behin-betiko bermea** jarri beharko du. Diru-kopuru hori kontratuaren lehia-oinarri bezala Udalak ezarritako aurrekontuaren %4aren hainbatekoa da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea hamabost lanegunetakoa izango da, kontratuaren adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaturik, eta eskudirutan nahiz Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 36.1 artikuluan ezarritako edozein modutan jarri ahal izango da.

Bermea, oso osorik edo, hala balegokio, zati batean, berme-epea bukatu eta adjudikatariak bere gain hartutako eginbehar guztiak betetakoan itzuliko da, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 47. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

8. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA ETA MODUA

Honako kontratu honen adjudikazioa **prozedura ireki** bidez egingo da, **lehiaketa** modua erabiliko delarik.

Lehiaketaren adjudikaziorako oinarritzat hartuko diren irizpideak honako hauek dira, garrantziaren arabera hurrenkeran adierazita:

1. Prezioa0tik 60ra
2. Lan-egitaraua zehazten duen txosten teknikoa, kontutan hartuz, obra-lanak Udaletxean administrazio jarduera geldiarazi gabe egin behar direla0tik 30ra



ATAUNgo UDALA

3. Egiterapen epea0tik 10era

9. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Lege-gaitasun eta iharduteko gaitasun oso osoa duten eta Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateratuaren 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debeku arazorik ez duten norbanako edo lege-nortasundunek parte har dezakete kontratazio prozedura honetan.

Halaber, beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute. Lege-nortasundun baten ordezkotzan bertako kideren batek parte hartuz gero, hori egiteko ahalmena duela egiaztatu beharko du agiri bidez. Kasu batean zein bestean, lehen aipaturik kontratatzeke ezgaitasun zioek ordezkariari eragingo diote.

10. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA Kontratazio honen espedientea eta espedientearekin batera dihoan dokumentazioa Udaletxe honetako Idazkaritzan aztertu ahal izango dira, 9:00etatik 13:00etara bitartean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lehiaketaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaturik.

Proposamenak ere leku eta ordutegi berean aurkeztuko dira. Horretarako **hamahiru egun naturaleko** epea ezartzen da, aipaturiko iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaturik.

Beranduago aurkeztutako proposamenik ez da onartuko, nahiz eta epea bukatu aurretik postetxean entregatu zirela egiaztatu. Proposamenak onartu ahal izateko, eskaintzaren igorpen-dataren ziurtagiria bidali beharko da Ataungo Udaletxera, telex edo telegrama bidez, proposamena postaz igorritako egun berean.

Lehiatzaileek bi sobre itxi (**A eta B**) aurkeztu beharko dituzte, sobre bakoitzean honako inskripzio hau idatziko delarik: **"UDALETXEAN AKZESIBILITATE-ERREFORMA ETA KOMUN PUBLIKOAK EGOKITZEKO PROIEKTUA BURUTZEKO LEHIAKETA IREKI BIDEZKO KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"**.

Enpresaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta honek zer izaerarekin egiten duen adierazi beharko da sobre bakoitzean. Horrez gain, bi sobreak sinatu egin beharko dira.

"A" sobreak honako azpititulu hau jarriko zaio: **"KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA GAUDIMENA"**. Eta jarraian adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da bertan:

a) Nortasun Agiri Nazionala, lehiatzaileak bere izenean parte hartuz gero. Askietsi eta egiaztatutako ahalmena, beste pertsona edo erakunde baten izenean ihardunez gero.



ATAUNgo UDALA

b) Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko eratze- edo aldaketa- agiria eta identifikazio fiskalerako zenbakia, lehiatzailea lege-nortasunduna izanez gero. Europako Elkarteko estatukideetako enpresari ez espainiarrak izanez gero, nahikoa izango da enpresari horiek lanbide edo merkataritza erregistroren batean inskribaturik daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legedian baldintza hori ezarriz gero.

d) Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 20. artikuluan kontratatzeke ezarritako debeku arazorik ez duela egiaztatzen den berarizko aitorpena.

e) Zerga-betebeharrei eta Gizarte-Segurantzari dagokienean egunean dagoela egiaztatzeke, erakunde aginpidedunek luzatutako agiriak aurkeztu beharko dira. Hori posible ez izanez gero, aipatu agirien ordeztu aitorpen bat ere aurkez daiteke.

f) Kontratistaren sailkapena egiazta dezan agiria, kontratistari **K taldea, 7 azpitaldea a) mailako** eta **J taldea, 5 azpitaldea a) mailako** lanak egiteko gaitasuna ematen diona.

g) Enpresarien aldi baterako batasuna bezalako zedozer eratzuz lehiaketara enpresari batzuek aurkeztuz gero, taldea osatzen duten enpresari bakoitzak iharduteko gaitasuna duela egiaztatu beharko du, aurreko puntuetan ezarritakoarekin bat.

h) Atzerriko enpresek parte hartuz gero, zuzen zuzenean edo zeharka kontratuaren ondorioz sor dadin edozein arazo argitzeko espainiako epaitegi eta auzitegien erabakien pean geratuko direla aitortu beharko dute. Eta lehiatzaileei egoki dakiekeen atzerriko eskumen-foruari uko egingo diote.

i) Behin-behingo bermea jarri dela egiaztatzen duen agiria.

"B" sobrearen azpititulua honako hau izango da: **"PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA ADJUDIKAZIORAKO IRIZPIDEAK"**. Eta ondoren adierazitako agiriak sartuko dira bertan:

a) Jarraian idatzitako eredura egokitutako proposamen ekonomikoa:

..... jaun/andrea.

Helbidea:.....P.K.:.....N.A.N.

zenbakia:.....Telefono zenbakia: Lege-gaitasun eta iharduteko gaitasun osoa izanik, bere izenean edo ordezkotzan.

Helbidea:..... P.K.:

Telefono zenbakia:N.A.N. edo I.F.Z. zenbakia (segun eta pertsona fisiko edo juridikoa den):

"Udaletxean Akzesibilitate-Erreforma eta komun publikoak egokitzeko proiektua" izeneko proiektuak bere barne hartzen dituen lanak kontratatzeke

Ataungo Udalak konbokatutako lehiaketaren berri izanik, honako hau adierazten dut:



ATAUNgo UDALA

1.- Aipatu lanak pezetan egiteko konpromezua hartzen dudala. Diru-kopuru horri beste honako hau gehitu behar zaio, B.E.Z. dela eta:

..... pezeta. Halaber, hitz ematen dut, adierazitako lanak epean bukatuko ditudala. Prezio horren barne sartzen dira kontzeptu guztiak, bai zergabide alorreko zerga, gastu, tasa, e.a., bai kontratistaren mozkin industrialak ere.

2.- Ezagutzen ditudala bai proiektua bera, bere eduki eta guzti, bai Klausula Administratibo Partikularren Plegua, bai eta kontratu hau eraundu behar duen gaineko dokumentazioa ere, eta oso sororik onartzen eta nireganatzen ditudala.

3.- Nik ordezkatzeko dudak enpresak indarrean dagoen arategiak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, irekitze, instalazio eta funtzionamenduari dagokionez.

b) Plegu honetako 8. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiazta dezaten agiriak.

Lehiatzaileek proposamenak aldatu ahal izango dituzte, kontratuaren xedea hobetzeraren.

11. DOKUMENTUAK KALIFIKATU ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta gero, Kontratazio-Mahaiak, alkateak edo honen ordezkari zinegotziak, udal-aholkulari teknikariak eta udaleko idazkariak osatuko dutelarik, ezarritako epean eta moduan jasotako dokumentazioa ("A" sobrea) kalifikatzeari ekingo dio. Agiri horietan akats materialak somatuz gero, hiru laneguneko epea emango da lehiatzaileak aipatu akatsak zuzen ditzan.

"B" sobrean aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira, proposamenak aurkezteko epea bukatu eta **laugarren lanegunean, 9:00etan**. Postaz igorritakoen kasuan, Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean xedatutakoa ezarriko da.

Gero, eta dagokion txosten teknikoak aztertu ondoren, hala balegokio, Kontratazio-Mahaiak kontratuaren adjudikazio-proposamena aurkeztuko dio Kontratazio-Sailari.

12. ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA SINATZEA

Adjudikazioa, gehienera jota ere, **bi hilabeteko** epean burutuko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontaturik.

Kontratazio-Sailak egindako adjudikazio bidez hobetuko da kontratua.

Adjudikatariari adjudikazioaren berri eman eta hurrengo egunetik kontaturik **hamabost laneguneko** epean, honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Behin-betiko bermea jarri eta, hala balegokio, berme osagarria ere bai.



ATAUNgo UDALA

b) Aldizkari ofizialetan eta, hala balegokio, egunkarietan lehiaketa honi buruz argitaratutako iragarkiak ordaindu.

d) Zerga-betebeharrei eta Gizarte-Segurantzari dagokienean adjudikataria egunean dagoela proposamenean ez egiaztatuz gero, eginbehar guzti horiek behar bezala betetzen dituela egiazta dezaten agiriak aurkeztu.

e) Udal honek ezarritako zergen ordainketan egunean dagoela egiazta dezaten agiriak aurkeztu.

f) Azkenik, Udaletxera bertaratu administrazio-agiri batean kontratua sinatzera.

Kontratistari leporatu ahal zaizkion arrazoinak direla bide kontratua ez sinatuz gero, Udalak kontratua haustea erabaki dezake, interesdunari entzun ondoren eta arazo horrek sortarazitako kalte eta hondamenak ordainduz.

13. KONTRATUAREN EGITERAPENA

Kontratuaren egiterapena kontratistaren arrisku eta zoriz burutuko da. Laneko galera, kalte edo hondamenak direla eta kontratistak inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik ez du izango, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 144. artikuluan aurrikusitako ezinbesteko kasuren bat izan ezean.

Lan-kontratuaren egiterapena zegunketaren egiaztapen-agiria sinatzearekin batera hasiko da, kontratua sinatutako egunetik kontaturik hamar eguneko epean.

Edozein modura, Plegu honetan ezarritako klausula, Pleguari erantsitako zehaztapen tekniko, hala nola, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta gainerako arautegietan ezarritakoarekin bat etorritz eta lanen zuzendari aginpidedunak kontratistari emandako aginduak betez egin beharko dira lanak.

14. KONTRATISTAREN LAN ARLOKO BETEBEHARRAK

Lan arloari, Gizarte-Segurantzari eta laneko segurtasun eta garbitasunari buruz indarrean dauden lege-xedapenak bete beharra dauzka kontratistak, kontratu honen xede diren lanak egiteko erabil ditzan langileei dagokienean. Arlo honetan Udalak inolako erantzukizunik ez du izango.

15. KONTRATUAREN EGITERAPEN ALDIAN HIRUGARRENEI SORTARAZI AHAL ZAIZKIEN KALTEAK DIRELA ETA KONTRATISTAK DUEN ERANTZUKIZUNA

Bere menpeko langileen akats eta utzikeriengatik, edo lanak gaizki antolatu, babestu eta seinalizatzeagatik, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publiko nahiz pribatu izan, sortarazi ahal zaizkien kalte eta hondamen guztien erantzukizuna izango du Kontratistak, lanen egiterapen aldian. Hori dela eta, erantzukizun hori bermatzearen, beste batzuen artean zibil



ATAUNgo UDALA

arloko subsidiarioa hartuko duen erantzukizun zibileko aseguru poliza bat egin behar izango du.

16. LANAK SEINALIZATZEA

Kontratistak beharrezko seinaleak jarri beharko ditu lanak burutuko diren lekuan bertan, ingurune guztian eta arriskutsuak izan daitezkeen puntuetan.

Aldi berean Kontratistaren gain izango dira, ekimenerako Europar Batasuneko kofinanziazioa dagoela adieraziko dituzten publizitate panelak jartzearen kostuak.

Zenbait seinale osagarri jartzearen edo jada jarritakoak aldatzearen gainean Zuzendaritzak idatziz emandako aginduak bete beharko ditu kontratistak.

Lanak seinalizatzeak sortarazitako gastuak kontratistak ordaindu beharko ditu.

17. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Herri-onurarako arrazoinak, behar berriak edo aurrikusi gabeko arazoak direla eta, Udalak kontratua alda dezake. Horrekin loturik, kontratistak inolako kalteordainik jasotzeko eskubiderik ez du izango, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 150.e) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

Kontratuan egindako aldaketek aurrez jaso gabeko lan-unitate berriak sartzea ekarriz gero, Kontratazio-Sailak finkatuko ditu aldaketa horien prezioak. Eta kontratistak ez onartuz gero, ebazpen-batzorde batek; Kontratazio-Sailak, finkatuko lituzkeen prezio beretan, beste enpresari batekin kontratatzearen edo zuzen zuzenean berak egitearen kalterik gabe.

18. EGINDAKO LANAK JASOTZEA ETA BERME-EPEA

Lanak bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean jasoko dira lanak. Horretarako, bilera bat egingo da, dagokion bilkura-agiria jasoko delarik.

Halaber, lanak formalki jasotzen direnetik kontaturik urte beteko epea ezartzen da, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan eta gainerako araudietan aurrikusitako ondorioen berme-epe gisa.

Hala ere, eta berme-epea bukatu egon arren, kontratistak kontratua ez betetzeagatik eraikuntzan egindako ezkutuko akatsen ondorioz lan guztia hondatuz gero, kontratistak bere gain hartuko ditu horrek sortarazitako kalte eta hondamen guztiak, lanak jaso zire-netik kontaturik hamabost urtetan zehar. Epe hau igaro eta inolako kalte edo hondamenik ez somatuz gero, kontratistak obraren gainean ez du inolako erantzukizunik izango.

19. KONTRATUAREN EGITERAPEN-EPEAK EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZARRI AHAL ZAIZKION ZIGORRAK



ATAUNgo UDALA

Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoinak direla eta, kontratuaren egiterapen-epeak ez betetzeagatik atzeratuz gero, Udalak kontratua hautsitzat jo dezake, bermea galduz, edota Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 95. artikuluan aurrikusitako zigorrak ezar ditzake.

Atzerapenagatik ezar daitezkeen zigorrek kontratuaren aurrekontu osoaren %20a ezingo dute gainditu. Hori dela eta, behin muga horretara iritsitakoan, Udalak kontratua hautsitzat jo dezake edota lanekin jarraitzea erabaki, baina zigorrak ezarri.

20. KONTRATUA HAUSTEKO ARRAZOINAK

Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren 111. eta 149. artikuluetan ezarritako arrazoinak lan--kontratua hausteko bide ematen dute.

21. UDALAREN ESKUBIDEAK

Udalak honako eskubide hauek izango ditu: kontratua interpretatzekoa, hura betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak erabakitzekoa, herri-onurarako arrazoinak direla eta kontratua aldatzekoa, haustea erabakitzekoa eta horrek berekin dakartzan ondorioak ezartzekoa; beti ere, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan ezarritakora mugatuz.

Zentzu horretan Udalak har ditzan erabakiek administrazio-bidea agortuko dute eta berehala bete beharrekoak izango dira.

22. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Administrazio-bidea agor dezaten erabakien aurka errekurtsio kontentzioso-administratiboa jar daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, kontratuarekin loturik sor daitezkeen auziak jurisdikzio kontentzioso-administratiboaren esku geratuko dira. Hala ere, alderdiek ebazpen bidez konpon ditzakete auziak, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

23. ERREJIMEN JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituz sinatu behar den kontratuak administrazio-izaera izango du eta bertan aurrikusi gabeko kasuetan jarraian adierazitako lege eta arauetara joko da:

- 2/2000 Errege-Dekretu Lejislatiboa, ekainaren 16koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen duena.

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Udal-Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen eta 781/1986 Errege-Dekretu Lejislatiboa, apirilaren 18koa, Udal-Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuan ezarritakoaren aurka joan ez dadin bitartean.



ATAUNgo UDALA

- Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, azaroaren 25eko 3410/1975 Dekretu bidez onartutakoa eta azaroaren 28ko 2528/1986 Errege-Dekretu bidez aldatutakoa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratuaren aurka joan ez dadin bitartean.

- Aipaturiko lege eta arau guztien osagarri bezala, administrazio-zuzenbideko gainerako arauetara joko da, eta horren ezean, zuzenbide pribatukoetara.

Klausula Administratibo Partikularren Plegu honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat egonez gero, Plegu honetan ezarritakoa gailenduko da.

.....(e)n, 2002korenan"

Hirugarren.- Lehiaketa konbokatzea. Horretarako, dagozkion iragarkiak jarri eta argitaratuko dira bai iragarki-oholean bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

V.- LARRUNTZAKO ERROTA EROSTEA.- Larruntzako Errota, bere ur-biltegi eta ubidearekin, Errotatxo, bere ur-biltegi eta ubide eta guzti, errotako presa eta baratza, Garayalde sendiari erosteko Udal-Bitartekoen Antolaketa eta Kudeaketa Batzordeak egindako proposamenaren berri eman du alkateak. Erain enpresak egindako neurketaren arabera, azalera osoa 2.166 metro karratukoa da. Hitzartutako prezioa, berriz, honako hau: BERROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMO.

Hori horrela, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, zera erabaki du:

Aurrena.- Larruntzako Errota, bere ur-biltegi eta ubidearekin, Errotatxo, bere ur-biltegi eta ubide eta guzti, eta errotako presa eta baratza Garayalde sendiari erostea. Diru-zenbatekoa: 44.866,33 euro.

Bigarren.- Eskritura publikoa eta gainerako agiriak izenpetzeko ahalmena ematea alkateari.

VI.- OTEIZAK ESKAINITAKO ESKULTURA.- Ondoren, batzarburuak gainerako batzarkideei jakinarazi die Oteiza eskultoreak eskultura bat eskaini diola Ataungo herriari, Joxemiel Barandiaranen omenez.

Eskultura, Oteizak egindako maketa batean oinarritzen dena, brontzekoa izango da eta 37.563,26 euro (+ %7 BEZ)



ATAUNgo UDALA

kostatuko zaio Ataungo Udalari, Alfa-Arte enpresak egindako aurrekontuaren arabera.

Kokapenari dagokionez, egilearen iritzia aintzat hartzea planteatzen da.

Besterik gabe, Udalbatzak, aho batez, ondorengo erabaki hau hartu du: Oteizak egindako eskaintza onartzea eta brontzezko eskulturaren kostua bere gain hartzea.

VII.- UDAL-BULEGOAK GARBITZEKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEA.-

2002ko ekainaren 5eko bilkuran onartutako Baldintza-Pleguari jarraiki, udalaren jabetzako bulegoak garbitzeko zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa egin da. Hori horrela, lehiaketa horretako akten (A eta B gutunazalak) berri eman du alkateak.

Lending Service, S.L. izan da eskaintza aurkeztu duen enpresa bakarra. Hona hemen enpresa horrek eskainitako prezioa: 35.985,52 euro (BEZ barne).

Besterik gabe, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du: garbiketaz-zerbitzua LENDING SERVICE, S.L. enpresari adjudikatzea. Eskainitako diru-zenbatekoa: 35.985,52 euro. Kontuan hartuko dira Baldintza Ekonomiko-Administratiboan eta Agindu Teknikoan Plegua eta lehiaketarako aurkeztutako proiektua. Bestetik, alkateari, udalaren izenean, kontratua sinatzeko baimena ematea ere erabaki da.

VIII.- "HERRI ANTZOKIA" USTIATZEKO ZERBITZUARI DAGOKION KONTRATUA LUZATZEA.-

"Herri Antzokia"ren ustiapen zerbitzua emateko Urbieta Egaña, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua urte bete luzatzea proposatu du alkateak.

Enpresa horrek aurkeztutako proposamenaren arabera, prezioak, bai kanonari dagozkionak bai sarreren prezioei dagozkienak, aurreko denboraldiko berberak izango dira.

Zerbitzuari dagokionez Udalak egiten duen balorazioa positiboa da, nahiz eta aipatutako zerbitzua defizitarioa izan. Horrela, bada, Udalbatzak, bertaratutako guztien adostasunez, honako erabaki hau hartu du: Urbieta Egaña, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua urte bete luzatzea. Enpresa horrek HAMAHIRU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO jasoko ditu kanon moduan. Ondoren, gutxieneko programazioaren berri ematen da:



ATAUNgo UDALA

ZINEMA KOMERTZIALA, 2002ko urritik 2003ko apirilera, 26 film.

HAURRENTZAKO ZINEMA, 2002ko urritik 2003ko martxora, 22 film.

Eguberri eta Aste Santuan ez da emanaldirik izango.

Prezioak:

- Zinema komertziala: 3,30 euro.
- Haurrentzako zinema: 1,80 euro.

IX.- GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINAK KUDEATZEKO 2002-2016 PLAN INTEGRALAREN AURRERAPENA.-

Hondakinak azken faserarte tratatzeko irizpide nagusiak zein diren azaldu du batzarburuak: kontzientziazioa, birziklapena (jarritako helburua, %40ra bitarte), konpostgintza eta azken tratamendua.

Batzarburuak adierazi du zerbitzu teknikoek, hainbat alternatiben aurrean, errausketaren alternatiba proposatzen dutela, bere kostua baxua delako eta ingurumenean duen eragina maila jasangarrien behetik dagoelako. Tratamendu guztiek ingurumenean eragina izan arren, alternatibaren eragin ekonomikoa ere baloratu beharra dago.

Aitor Aldasorok aditzera eman du gai honi buruzko erabakia hartzeko bozketa egiterakoan abstenitu egingo direla beraiek. Gai honek duen garrantzia kontuan harturik, berau Goierri mailan aztertzeke asmoa bazuten ere, eta horretarako egutegia jarrita eduki arren, ezin izan dute gai honetan sakondu alderdi bezala bizi duten egoeraren ondorioz.

Dena den, uste dute gai hau berriz ere aztertu beharko dela eta gai honek eragiten dien sektore guztien partehartzea bultzatu beharko dela.

Horrela, bada, eta besterik gabe, Gipuzkoako Hiri-Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Integralaren Aurrerapenarekiko atxikimendu-proposamena bozkatu ondoren, berau onartu egin da. Aitor Auzmendi Asurabarrena, Iñaki Eskisabel Zurutuza, Jexux Goikoetxea Etxeberria, Jaione Munduate Mujika eta Santi Etxeberria Goikoetxeak aldeko botua eman duten bitartean, Aitor Aldasoro Sukia, Oihana Munduate Dorransoro, Lourdes Etxeberria Arrese eta Joxe Mari Barandiaran Begiristain abstenitu egin dira.



ATAUNGo UDALA

X.- LANKIDETZA-PROGRAMA: 0`7 EKIMENAREKIN ERLAZIONATUTAKO DIRULAGUNTZEN PROPOSAMENA.-

Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzeko programan aurreikusitako dirulaguntzak emateko Gizarte-Ongizate Batzordeak egin duen proposamenari buruzko iritzia eskatu die batzarburuak gainerako batzarkideei. Hona hemen proposamena zertan datzan:

- MEDICUS MUNDIri 6.310,63 euro ematea honako proiektu honetarako: "Ekuadorreko Amazonasen petrolio-ustiatzeki duten eraginaren aurrean indigena eta nekazarien erresistentzia indartzea".

- ROKPA EUSKADIri 601,01 euro ematea honako proiektu honetarako: "Lehen irakaskuntzako eta tibetar medikuntzako Yushu-ko eskola".

Hori horrela, proposamenari buruzko botu-emanketa egin eta onartu egin da. Bertaratutako batzarkide guztiek aldeko botua eman dute.

XI.- BIDARTEKO SARBIDEARI DAGOKIONEZ, AGAUNTZA ERREKAREN UHOLDEETATIK BABESTEKO, ETA ERREKA BIDERATZEKO PROIEKTUAN SARTU BEHARREKO ALDAKETA.-

Herritar batek iradokita, bidezkoztat jo da, eta horrela proposatzen da, Bidarteko zubirako sarbidean aurreikusitako iturria kentzea eta eskailera zabalagoak egitea. Horrek ez lioke arrapalari eragingo. Hori dela eta, iturria beste leku batean joango litzateke.

Udalbatzak, aho batez, honako erabaki hau hartu du: iturria kentzeko eta eskailerak zabaltzeko proposamena onartzea.

XII.- ATAUNGO IRISGARRITASUN-PLANA EGITEKO LANAK ADJUDIKATZEA.-

2002ko Alkatetzaren Erabakiaren berri eman du alkateak. Alkatetzaren Erabaki horren bitartez, Ataungo Irisgarritasun-Plana egiteko lanak, HAMAIKA MILA ETA SEIEHUN euroko zenbatekoz (BEZ barne), BIZGORRE, S.L. (ADIR) enpresari adjudikatzea erabaki zen.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XIII.- SEI ZK.KO EGIAZTAPENA, SAN MARTINGO HIRIGUNE HISTORIKOA BERRESKURATZEKO BIDEKO OBRENA.-

Sei zk.ko Egiatzen onartzen den Alkatetzaren Erabakiaren berri eman du batzarburuak. Egiatzen horren diru-zenbatekoa:



ATAUNgo UDALA

HOGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO. Egiaptapen hori Obra-Zuzendaritzak idatzi du Construcciones DONOSTI, S.A. enpresaren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XIV.- 5-B ETA 6-B ZK.KO EGIAZTAPENAK, "ATAUNGO SAN MARTIN AUZOAN AGAUNTZA ERREKAREN UHOLDEETATIK BABESTEKO, ETA ERREKA BIDERATZEKO PROIEKTUA" N JASOTAKO OBRENA.-

Agauntza erreken uholdeetatik babesteko, eta erreka bideratzeko obren 5-B eta 6-B zk.ko egiaztapenak onartzen diren alkatetzaren erabakien berri eman du batzarburuak. Egiaptapen horien diru-zenbatekoa, hurrenez-hurren: HAMABOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HOGEITA HAMABOST ZENTIMO; ETA HEMERETZI MILA BERREHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO. Egiaptapen horiek Obra-Zuzendaritzak idatzi ditu UBIRI, S.L. enpresaren alde.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

XV.- ALKATETZAK DEKRETU BIDEZ EMANDAKO OBRA-BAIMENAK.-

Jarraian, Alkatetzaren Dekretu bidez emandako honako lan-baimen hauen berri eman du Batzarburuak:

- Pedro Urdangarin Goikoetxea (Aldarreta azpikoa baserria): Logela bakoitzean bainu bat egokitu.
- Miguel Angel Aierbe Aldasoro (Lauztiturrieta): Ikuiluaren zabaltzea eta berrantolaketa.
- Iñaki Galparsoro Munduate (Sutegi etxea): Bi etxebizitza eta lokala eraikitze oinarritzko proiektua.
- Jose Antonio Imaz Telleria (Iturritza Zaharra): Teilatuan erretila egin.
- Xabi Eskisabel Izagirre (Ubarrieta 4. E): Sukaldea berritu eta leihoak aldatu.
- Mikaela Barandiaran Etxeberria (Aiztondo baserria): Terraza bat egin.
- Zubikoeta Konpentsazio batzordea: Lurpeko linea elektrikoa eta transformazio-zentrua.
- Junkal Galparsoro Urbizu (San Martingo mediku etxea): Leihoak aldadu fatxadako kolorea errespetatuz.
- Cruz Arratibel Arin (Iturbe baserria): Etxea zarpeatu.
-



ATAUNgo UDALA

- Joxemiel Barandiaran Fundazioa (Zelaieta etxea): Lokala berritu.
- Kontxi Urdangarin Zurutuza (Auzmendi baserria): Teilatua berritu.
- Ramon Imaz Arratibel (Sariarte etxea): fatxada zuritu.
- Iñaki Galparsoro Munduate (Sutegi etxea): Etxearen erausketa.
- Olatz Guridi Urbieta (Katarrotegi etxea): fatxada margotu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

AKTA BUKAERA.- Eta aztergai gehiago ez dagoenez, Alkatetzak, 21:20an, bilkura bukatutzat eman eta honako akta hau jaso da. Nik, idazkariak, fede ematen dut.